

Sortze data: 2003

Egilea: Irune Gomez

Testuaren jatorria: Euskal Automi Elkarteko hezkuntza kooperatiboaren diagnostikoa da jarraian azaltzen den testua. Humanitateak-Enpresa ikasketetako Karrera Amaierako Proiektua da jatorriz, proiektuak emandako emaitza hain zuzen.

Jatorrizko hizkuntza: Euskara

EAEko HEZKUNTZA KOOPERATIBOAREN DIAGNOSTIKOA

Irune Gómez
2003-6-27

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena eta helburuak.....	3
2. Ikerketaren emaitzak	
2.1 Bildutako informazioa	
2.1.1 Arrasateko Goi eskola politeknikoa.....	5
2.1.2 ETEO	9
2.1.3 HUHEZI.....	14
2.1.4 EHU	23
2.1.5 GEZKI	28
2.1.6 Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua.....	37
2.1.7 Arizmendi	40
2.1.8 Otalora.....	42
2.1.9 Kontsumoko Kooperatiben Federazioa.....	50
2.1.10 Lan elkartuko Kooperatiben Federazioa	52
2.1.11 Nekazal Kooperatiben Federazioa.....	57
2.2 Emaitzen laburpena taulatan.....	63
2.3 Emaitzen analisisa grafikotan	73

1. Aurkezpena eta Helburuak

Formazio kooperatiboa eta bere garapena Lankiren kezka eta egiteko nagusietako bat dugu. Norabide honetan pausuak eman dira Ikertegitik: oinarrizko materialgintza sorkuntza, formazio modulu berrien esperimentazioa... Oraingoan ikerketa honek EAEko lankidetzaren hezkuntzaren diagnostikoan lagundu nahiko luke, gure Erkidegoan dagoen formazio kooperatibo eskaintzaren argazkia eginaz.

Ikerketa honen helburu nagusia, hortan, EAEko hezkuntza kooperatiboaren mapa eraikitzea da. Zehazki, 2002-2003 ikasturtean EAEko sektore ezberdinetan (unibertsitatea, ikastolak, kooperatiba, eta bestelakoetan) eman den hezkuntza kooperatiboaren diagnostikoa egitea eta hezkuntza kooperatibo horren nolakotasuna aztertzea (erakunde emaileak, baliabideak, ikasle kopuru eta perfila, eduki eta metodologiak...)

Guzti horretarako ondoko hauek dira aztertu ditugun guneak:

Unibertsitatea:

Deustu/Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua

EHU/GEZKI

Mondragon Unibertsitatea

Hezkuntza Orokorra:

Ikastolak

Arizmendi

Kooperatibak:

Otalora

Kooperatiben Federazioak

Eta horietako gune bakoitzean ondoko informazioa bildu nahi izan da:

Formatzaileak: izen-abizenak, profil profesionala

Ikasleak: kopurua, burutzen ari diren ikasketak, zein kooperatibatan egiten duten lan...

Metodologia: edukiak, formatua, erabilitako baliabideak

Txosten honek ikerketaren emaitzak jasotzen ditu hiru atal nagusitan: 1) bildutako informazioa orokorrean eskaintzen duen lehenbiziko atal bat, 2) emaitzen laburpena taulatan aurkezten digun bigarren atala, eta azkenik 3) grafiko bidez eginiko emaitzen analisi xume bat ditugu eskura.

2. Ikerketaren emaitzak

2.1 Bildutako informazioa

2.1.1 ARRASATEKO ESKOLA POLITEKNIKOA

AUKERA ASKEKO KURTSOA: HEZKUNTZA KOOPERATIBOA

Aukera askeko kurtso hau 2001-2002 ikasturtean eman zen, aurretik Arrasateko Eskola Politeknikoan 5 urtez jarraian emandako kurtsoa da. Esan beharra dago 2002-2003 kurtsoan ezinezkoa izan dela kurtso hau martxan jartzea.

A) EDUKIAK

1.- Kooperatibismoaren historiaren inguruan sarrera labur bat

- q Iraultza industrialaren sorrera
- q Errealismo ekonomikorik eza
- q Sozialismo utopikoa
- q Rochdale
- q Kooperatibismoa Euskal Herrian
- q Alfa
- q Arizmendarrieta
- q Arrasatekoa Esperientzi Kooperatiboa

2.- Kooperatibismoaren Printzipio eta baloreak

- q 10 printzipioak
- q 4 baloreak: kooperazioa, solidaritatea, berrikuntza, gizartearekiko konpromisoa.

- q Baloreetan sakontzea

3.- Kooperatibaren egitura

4.- Kooperatibaren kontinuum legala

- q Estatutuak eta legedia

5.- MCCren Gestio modeloa

6.- Kooperatiben hobekuntzarako planteamenduak (debateak, iradokizunak...)

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak
- q Kooperatibismoaren inguruko kasu praktikoak
- q Debateak
- q Bideoak: " El poder de una visión", " El director desorganizado", " Los paradigmas".
- q Liburuxkak: " Otorako testu basikoak"

C) IKASLEAK

- q Informatika ingeniariatzatik, 5 ikasle.
- q Industri antolakuntzan ingeniariatzatik, 25 ikasle.
- q Industri mekanikan ingeniariatza teknikotik, 5 ikasle.

D) IRAKASLEA

Kurto honen hezitzailea **Jose Mari Larrañaga** da, bere perfil profesionala ondorengoa da: Ingenieritza Teknikoko ikasketak burutu eta enpresa munduan aritutako gizona da. Fagor Ederlaneko Kontseilu Errektorean eta Kontseilu Sozialen aritutakoa eta Giza baliabideetako zuzendari izandakoa. MCCko Otorako formazio zentroan ere eman zituen urte batzuk. Eskoriatzako Humanitateak eta Hezkuntza zientzien fakultatean ere irakasle

moduan jardun zuen, gaur egun berriz Arrasateko Eskola Politeknikoko irakasle lanetan dihardu.

KOOPERATIBAN BARNERATZEN DIRENEI BIDERATUTAKO HEZKUNTZA KOOPERATIBOA

Hezkuntza mota hau Arrasateko Eskola Politeknikoan kontratatzen diren langile guztiei ematen zaie, aldi baterako langileek zein bazkideek derrigor jaso beharreko hezkuntza izaten da, eta 10 ordutako luzapena izaten du.

A) EDUKIAK

Kooperatiban barneratzen direnei zuzendutako hezkuntza honetan bi gai jorratzen dira:

- q Kooperatibismoaren baloreak
- q Kooperatiben inguruko zuzenbidea

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak
- q Kasu praktikoak
- q Debateak
- q Liburuxkak: Otalorako testuak

C) HARTZAILEAK

2002.urtean 30 pertsona inguruk jaso zuten formazio hau, eta 2003.urtean beste 30 pertsona inguruk jasoko dutela aurreikusten da.

D) IRAKASLEA

Jose Mari Larrañaga.

INGENIERITZA GUZTIETAN BIDERATUTAKO IKASGAIA: PERTSONEN INGURUKO POLITIKA

Asignatura hau Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko ingeniari-tza guztietan ematen da urtero, 2002-2003 urtean ere eman da.

A) EDUKIAK

Pertsonen inguruko baloreak eta balore kooperatiboak hartzen dira oinarri bezala, oinarri hau jarraituz ondorengo gaietan sakontzen da:

- q Pertsona
- q Barne komunikazioa
- q Besteenganako erresponsabilitatea
- q Zuzendaritza
- q Enpresaren inguruko politikak

Aurretik esan bezala, gaiak jorrazteko eta sakontzeko abiapuntu moduan balore kooperatiboak eta pertsonen inguruko baloreak erabiltzen dira.

B) BALIABIDEAK

- q Bideoak: "El poder de una vision", " El director desorganizado", " Los paradigmas".
- q Klase teorikoak
- q Kasu praktikoak
- q Debateak
- q Materiala: Baloreen inguruko txostena, Zuzendaritza estiloen inguruko txostena.

C) IKASLEAK

Ingeniari-tza 2.zikoko 386 ikaslek jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEA

Jose Mari Larrañaga.

2.1.2. ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA (ETEO)

AUKERA ASKEKO IKASGAIA: ENPRESA KOOPERATIBOA

Ikasgai hau 200-2001 kurtsoan eman zen lehenengo aldiz Rafa Altunaren eskutik, ondorengo bi ikasturtean (2001-2002 eta 2002-2003) berriz ezinezkoa suertatu da ikasgai hau bideratzea.

A) EDUKIAK

I. KOOPERATIBISMOAREN IDEOLOGIA

1. Kooperatibismoaren historiaren inguruan sarrera

1.1 Industri Iraultza

1.2 Burgesia iraultza

1.3 Errestaurazioa

2. Korrante ideologiko nagusiak

2.1 Liberalismoa eta Neoliberalismoa

2.2 Kontserbadorismoa

2.3 Sozialismoa

2.3.1 Sozialismoa utopikoa

2.3.1.1 Babeuff

2.3.1.2 Saint-Simon

2.3.1.3 Fourier

2.3.1.4 Owen. Rochdaleko aitzindariak

2.3.2 Sozialismo zientifikoa. Materialismo historiko dialektikoa

2.3.2.1 Marx eta Engels

3. Arizmendiarrietaren pentsamendua

3.1 Arizmendiarrietaren perfil biografiakoa eta testuinguru historikoa.

3.2 Pentsamenduaren iturriak

3.2.1 Pentsamendu pertsonalista

3.2.1.1 Mounier

3.2.1.2 Maritain

3.2.2 Elizaren doktrina soziala

3.2.3 Euskal Herriko gizartearen ohiturak

3.3 Errealitatearekiko jarrera

3.4 Pertsona eta komunitatea

3.5 Hezkuntza

3.6 Lana

3.7 Elkartasuna

3.8 Partizipazioa

3.9 Jabetza

3.10 Enpresa: Lanaren komunitatea

II. KOOPERATIBISMOAREN ISURKI ENPRESARIALA

4. Kooperatiben ordenamendu juridikoa

- 4.1 Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipioak.
- 4.2 Gizarte kooperatibaren identifikazioa
- 4.3 Euskadiko kooperatiben legediaren aplikazio eremua
- 4.4 Kooperatibaren eraketa, bazkideak eta organoak

5. Kooperatiben erregimen ekonomiko eta finantzieroa

- 5.1 Kapitalen sozietatea versus sozietate kooperatiboa
- 5.2 Kapitalera ekarpenak
- 5.3 Itzulkinen banaketa
- 5.4 Fondo sozialak

6. Kooperatibismoa munduan

7. Kooperatibismoa Euskal Herrian 1884-1936

II. ARRASATEKO EXPERIENTZIA KOOPERATIBOA

8. Jatorria

9. Antolaketaren egitura

10. Koberturazko entitateak

11. Kreditu kooperatibak

12. Mondragon Corporacion Cooperativa (MCC)

13. Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren erronka berriak

13.1 Nazioarteratzea

13.2 Identitate adierazpenak

B) BALIABIDEAK

- q Azalpen teorikoak
- q Bideoa ("Elkarrizketa Kooperatiben aitzindari")
- q Klaseko lana: kooperatiben aitzindari elkarrizketa egin eta beraien esperientziak jaso.
- q Apunteak: fotokopiak eta beste material batzuk.

C) IKASLEAK

Enpresa Administrazioa eta zuzendaritza lizentziaturako 3 eta 4.mailako 18 ikaslek jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEA

Ikasgai hau zuzendu duen irakaslea Rafael Altuna da. Berau Soziologoa da, hamabi urte daramatza ETEOko "Administrazio eta Enpresa zuzendaritza" diplomaturan eta formakuntza zikloetan irakasle lanetan.

ENPRESA ZUZENDARITZAKO MASTERRA

Master hau 2002-2003 ikasturtean eman da ETEOn . Bertan, Enpresa Kooperatiboa izeneko gaia jorratu da.

A) EDUKIAK

Enpresa Kooperatiboa: Kooperatiben egitura, izaera ideologikoa, izaera ekonomikoa eta juridikoa.

B) BALIABIDEAK

Irakaslearen azalpen teorikoak, eta idatzizko testuak.

C) IKASLEAK

- q 1 Kontabilitatean lizentziatua

- q 9 Enpresan Administrarritza eta Zuzendaritzan lizentziatuak
- q 4 Zuzenbidean lizentziatuak
- q 1 Ekonomian lizentziatua
- q 1 Enpresa zientzietan lizentziatua
- q 2 Humanitateak eta Enpresan lizentziatuak
- q 1 Industri diseinuan injinerutza teknikoa
- q 2 Enpresa Zientzietan diplomatua
- q 1 Marketing eta gestio komertzialean lizentziatua
- q 1 Idazkaritzan diplomatua

Guztira 23 pertsonak jaso dituzte klase hauek.

D) IRAKASLEA

Jose Mari Larrañaga.

MASTERRA: FINANTZA ZUZENDARITZA

Master hau 2002-2003 ikasturtean eman da ETEOn . Bertan, Enpresa Kooperatiboa izeneko gaia jorratu da.

A) EDUKIAK

Enpresa Kooperatiboa: Kooperatiben egitura, izaera ideologikoa, izaera ekonomikoa eta juridikoa.

B) BALIABIDEAK

Irakaslearen azalpen teorikoak, eta idatzizko testuak.

C) IKASLEAK

- q 9 Enpresen Administrarritza eta Zuzendaritzan lizentziatuak

- q 1 Psikologian lizentziatua
- q 3 Enpresa Zientzietan lizentziatua
- q 1 Ekonomia eta Gestioan lizentziatua
- q 1 Kontador publiko
- q 2 Humanitateak- Enpresan lizentziatuak

Guztira 17 pertsonak jaso dituzte klase hauek.

D) IRAKASLEA

Jose Mari Larrañaga.

2.1.3. HUMANITATEAK ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

(HUHEZI)

IKASGAIA: KOOPERATIBISMOA ETA ENPRESAREN KUDEAKETA

2002-2003 kurtsoan Humanitateak eta Enpresa lizentziaturan emandako ikasgaia.

A) EDUKIAK

- § Kooperatibismo modernoaren sorrera. Ikuspegi ideologiko eta historikoa.
- § Kooperatiben printzipio eta baloreak
- § Enpresa kooperatiboaren antolakuntza eta funtzionamendu egiturak
- § Sistema kooperatiboak: demokrazia ekonomikoa kudeatzearen zailtasunak
- § Arrasateko Kooperatiba Esperientzia. Genesis, bilakaera eta etorkizuneko erronkak.
- § Kooperatibismoa enpresa-kultura eta gestio eredu berrien aurrean
- § Kooperatiba-enpresen nazioarteratzea. MCCren kasua.

§ Ekonomia solidarioa eta enpresa sozial alternatiboak. Kooperatibismo alternatiboaren garapena.

§ XXI.mendeko Kooperatibismorantz

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak
- q Bideoak.
- q Testuak

C) IKASLEAK

Humanitateak eta Enpresa lizentziaturako 4.mailako 70 ikasle inguruk parte hartu dute ikasgai honetan.

D) IRAKASLEA

Joseba Azkarraga, Soziologian lizentziatua, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea.

IKASGAIA: FILOSOFIA

2002-2003 kurtsoan Humanitateak eta Enpresa lizentziaturan emandako ikasgaiaren atala.

A) EDUKIAK

1. Pertsonalismoa eta Kooperatibismoa

- 1.1 Pertsonalismoaren nondik norakoak
- 1.2 Arizmendarrietaren ikuspuntura hurbilpena
- 1.3 Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren egungo galdegaiak
 - 1.3.1 Printzipio eta balore kooperatiboak

2. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua

- 2.1 Bizitza eta emaitzak
- 2.2 Diagnostika
- 2.3 Jarrerak
- 2.4 Pertsona eta komunitatea
- 2.5 Hezkuntza
- 2.6 Lana
- 2.7 Elkartasuna
- 2.8 Partehartzea
- 2.9 Enpresa: Lan-komunitatea
- 2.10 Garapen osoa
- 2.11 Atzetik aurrera begira

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak
- q Bideoak.
- q Testuak
- q Liburua: "Lankidetz"

C) IKASLEAK

Humanitateak-Enpresa lizentziaturako 3.mailako 60 ikaslek jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEA

Jon Sarasua, Informazio Zientzietan doktoratua, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea.

IKASGAIA : MERKATARITZA ZUZENBIDEA

2002-2003 ikasturtean Humanitateak-Enpresa lizentziaturan emandako ikasgaia.

A) EDUKIAK (14 ordu)

1. KOOPERATIBA ELKARTEA

- 1.1 Kontzeptua eta ezaugarriak
- 1.2 Kooperatiba motak
- 1.3 Bazkide motak:
 - 1.3.1 Lan bazkidea edo langile bazkidea
 - 1.3.2 Bazkide laguntzailea
 - 1.3.3 Bazkide erabiltzailea
 - 1.3.4 Jardunik gabeko bazkidea
- 1.4 Organoak:
 - 1.4.1 Batzar Orokorra
 - 1.4.2 Errektore Kontseilua
 - 1.4.3 Kontseilu Soziala
 - 1.4.4 Errekurtso Batzordea
 - 1.4.5 Zaingo Batzordea

2. KOOPERATIBEN ERREGIMEN EKONOMIKOA

B) BALIABIDEAK

- q Azalpen teorikoak
- q Kasu praktikoa

q Testuak

C) IKASLEAK

Humanitateak-Enpresa lizentziaturako 3.mailako 60 ikaslek jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEAK

Aitziber Arregi, Zuzenbidean lizentziatua, Kooperatiba Ikaskuntzen Espezializazioan diplomatua, gaur egun Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea.

Peio Barandiaran, Zuzenbidean lizentziatua, Enpresa Zuzendaritzako masterra burutu zuen Deuston, gaur egun Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea, eta abokatua.

IKASGAIA: LAN ZUZENBIDEA ETA ZUZENBIDE FISKALA

2002-2003 ikasturtean Humanitateak-Enpresa lizentziaturan emandako ikasgaia.

A) EDUKIAK

ZUZENBIDE FISKALA

I. KOOPERATIBEN ERREGIMEN FISKALA

1. APLIKAGARRIA ZAIEN LEGEDIA
2. KOOPERATIBEN ERREGIMEN EKONOMIKOA
 - 2.1 Kapital Soziala
 - 2.2 Bazkideen ekarpenak
 - 2.2.1 Derrigorrezko ekarpenak
 - 2.2.2 Borondatezko ekarpenak
 - 2.2.3 Ekarpenak berreskuratzea
 - 2.3 Etekinen banaketa

- 2.4 Beste diru iturri batzuk
 - 2.4.1 Sarrerako eta aldizkako kuotak
- 2.5 Galeren egozpena
- 2.6 Derrigorrezko fondoak
 - 2.6.1 Derrigorrezko erreserba fondoa
 - 2.6.2 Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoa
- 2.7 Urteko kontuak
- 3. KOOPERATIBEN SAILKAPEN FISKALA:
 - 3.1 Babestu gabeko kooperatibak
 - 3.2 Babesturiko kooperatibak:
 - 3.2.1 Babestutako kooperatibak
 - 3.2.2 Bereziki babestutakoak
 - 3.3 Kooperatiben zerga-berezitasunak

II. ZERGA ZUZENBIDEA

- 1. KONTZEPTUA ETA EDUKIA
- 2. ZERGA ETA TASA
- 3. ZERGA-ELEMENTUAK
 - 3.1 Subjektu-pasiboa
 - 3.2 Zergapeko egitatea
 - 3.3 Zerga oinarria. Zerga-tipoak
 - 3.4 Zerga-kuota

4. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

5. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

6. SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA.

LAN ZUZENBIDEA

1. KOOPERATIBAKO ERREGIMENAREN BARNE-ERREGULAZIOA

2. LAN AURRERAKINAK

3. ITZULKINAK ETA HAUEK DUTEN ERLAZIOA BURUTUTAKO LAN ZERBITZUAREKIN

4. ARRAZOI EKONOMIKO, PRODUKZIO, EDOTA ANTOLAKUNTZA ARRAZOIENGATIK ETENALDIA EDO DERRIGORREZKO BAJA

5. LANAREKIN ZERIKUSIA DUTEN DIZIPLINA FALTA LARRIENGATIK KALERATZEA

6. DENBORA MUGATU ZEIN MUGAGABEKO ERLAZIO SOZIJETARIOAK

7. LAN KONTRATUDUNAK

8. LAN BAZKIDEEN LAN ERREGIMENAREKIN LOTUTAKO MATERIAK:

8.1 Lan jardunaldiak

8.2 Asteko deskantsua

8.3 Jaiak

8.4 Oporrak

8.5 Baimenak

8.6 Klasifikazioa profesionala

8.7 Mugikortasun funtzionala

8.8 Mugikortasun geografikoa

8.9 Eszedentziak

8.10 Alta eta zigorrak

9. KONTSEILU SOZIALAREN FUNTZIOAK KOOPERATIBAN ESKEINITAKO LAN ZERBITZUEN INGURUAN

B) METODOLOGIA

- q Azalpen teorikoak
- q Kasu praktikoak
- q Testuak

C) IKASLEAK

Humanitateak eta Enpresa lizentziaturako 4.mailako 70 ikasle inguruk jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEAK

Aitziber Arregi, Zuzenbidean lizentziatua, Kooperatiba Ikaskuntzen Espezializazioan diplomatua, gaur egun Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea.

Peio Barandiaran, Zuzenbidean lizentziatua, Enpresa Zuzendaritzako masterra burutu zuen Deuston, gaur egun Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea, eta abokatua.

MASTERRA: ENPRESA PROIEKTUEN ZUZENDARITZA

Master hau, 2002-2003.urtean eman da Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, bere edukien barnean Hezkuntza Kooperatiboaren inguruan 8 orduko modulu dago.

A) EDUKIAK

- q Globalizazioa eta autogestioa
- q Arizmendarrietaren pentsamendua

- q Kooperatibismoaren oinarritzko printzipioak
- q Arrasateko Esperientziaren oinarritzko printzipioak
- q Arrasateko Kooperatibismoaren bilakaera
- q Arrasateko kooperatiben esperientziak gaur egun dituen arazoak eta galdegaien inguruko debatea.

B) BALIABIDEAK

- q Azalpen teorikoak
- q Klase partehartzailek: debatak, ikasleen iritziak...

C) IKASLEAK

Master hau burutzen ari diren 25 ikaslek jaso dute modulu hau.

D) IRAKASLEA

Jon Sarasua, Informazio Zientzietan doktoratua, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea.

2.1.4.EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA: ZUZENBIDEKO FAKULTATEA (DONOSTIA)

IKASGAIA: MERKATARITZA ZUZENBIDEA

A) EDUKIAK

1. GAIA: SOZIETATE KOOPERATIBOA

SARRERA

1. Kooperatiben garapena historian zehar
2. Sozietate kooperatiboak legislazioan eta praktikan
3. Sozietate kooperatiboak espainiar legislazioan eta legislazio autonomikoan.

SOZIETATE KOOPERATIBOAREN KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

1. Sozietate kooperatiboa eta beste sozietateen arteko desberdintasunak.
2. Kooperatiba motak

SOZIETATE KOOPERATIBOAREN IZAERA JURIDIKOA

1. Kooperatiben ahalmen orokorra
2. Sozietate kooperatiboaren izena eta helbidea
3. Gutxieneko kapital soziala
4. Arduren erregimena

EUSKADIKO KOOPERATIBEN ERREGISTROA

1. Jatorria eta antolakuntza
2. Errektore printzipioak eta erregistroaren funtzionamendua

3. Erregistroaren funtzioak

2.GAIA: SOZINETATE KOOPERATIBOEN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA KONSTITUZIOA

SOZINETATE KOOPERATIBOEN SORKUNTZA

1. Sorkuntzaren prozesua, beharrezko batzarra.
2. Estatutuen proiektuaren aurre kalifikazioa
3. Sozietate kooperatiboa bere sorreran eta kooperatiba irregularrak
4. Sozietate kooperatiboaren konstituzioa.
5. Estatutu sozialen edukiak
6. Sozietate kooperatiboaren baliogabetzea

KOOPERATIBAKO BAZKIDEEN ESTATUTU JURIDIKOAK

1. Bazkide izaera lortzeko kondizioak
2. Onarpen prozedura
3. Bazkide motak
4. Bazkideen betebeharrak eta ardurak
5. Bazkidearen baja boluntarioa, derrigorrezko baja eta kaleratzea
6. Diziplina sozialaren inguruko arauak

3. GAIA: SOZINETATE KOOPERATIBOEN ORGANOAK

SOZINETATE KOOPERATIBOEN ORGANOAK

1. Kooperatibako organoen antolakuntza
2. Konpetentzien banaketa organo desberdinen artean

3. Beharrezko organoak eta ahalmen organoak

BATZAR OROKORRA

1. Kontzeptua eta betebeharrak
2. Batzar motak
3. Batzarraren konstituzioa eta funtzionamendua.
4. Boto eskubidea. Gehiengoaren erregimena.
5. Akordio sozialak eta batzarreko akta
6. Gizarte akordioen kontrako ekintzak

KOOPERATIBAKO ADMINISTRAZIO ORGANOA

1. Jatorria, kompetentziak, administrazioa sistema.
2. Administrarien aukeraketa
3. Ezgaitasuna eta debekuak
4. Karguaren iraupena eta amaiera.
5. Ordainsaria
6. Administrarien ardura soziala
7. Kontseilu Errektorearen egitura, funtzionamendua eta antolakuntza.
8. Administrarien akordioen kontrako ekintzak.

4. GAIA: KOOPERATIBAKO DOKUMENTAZIOA, ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA KONTABILITATEA

KOOPERATIBAKO ERREGIMEN EKONOMIKOA

1. Kapital soziala

2. Derrigorrezko ekarpenak eta borondatezko ekarpenak
3. Ekarpenen eguneratzea, berreskuratzea eta transmisioa
4. Kapitaletik kanpo dauden beste ekarpenak
5. Derrigorrezko eta borondatezko fondoak
6. Soberakinen aplikazioa
7. Galeren egozpena

KOOPERATIBAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA

1. Dokumentazio soziala
2. Kontabilitatea
3. Kontuen auditoriak

5. GAIA: KOOPERATIBAKO EGITURAREN ETA ESTATUTUEN ALDAKETA

ESATUTUEN ALDAKETA

1. Kontzeptua
2. Eskudun organoa
3. Baldintza formalak
4. Erregimen espezifiko batetara egokitutako akordioak

KOOPERATIBEN FUSIOA

1. Kontzeptua eta motak
2. Fusioaren prozedura
3. Fusioaren akordioa
4. Bazkidearen ezezko eskubidea eta hartzaileen oposizioa

5. Fusioaren formalizazioa

KOOPERATIBAREN ESZISIOA

1. Kontzeptua eta motak
2. Erregimen juridikoa

KOOPERATIBEN TRANSFORMAZIOA

1. Kooperatibaren transformaziorako erregimena

KOOPERATIBAREN DISOLUZIOA ETA LIKIDAZIOA

1. Kooperatiben disoluzioa. Zergatiak.
2. Kooperatiben likidazioa. Prozesua.
3. Egiteko sozialaren adjudikazioa
4. Kooperatibaren desagertpena

B) BALIABIDEAK

- q Azalpen teorikoak
- q Merkataritza zuzenbideari buruzko apunteak

C) IKASLEAK

Lehioako eta Donostiako fakultateko ikasleen batura kontutan hartuta 400 pertsona inguruk jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEA

Jose Maria Suso Vidal, Donostiako zuzenbide fakultateko irakaslea.

2.1.5. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GIZARTE-EKONOMIA ETA ZUZENBIDE KOOPERATIBOAREN INSTITUTUA (GEZKI)

Ondorengo kurtsoak 2002.urtean GEZKIn emandakoak dira.

KURTSOA: GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESETAN, LAN ERLAZIOAK ETA GIZARTE SEGURANTZA

A) EDUKIAK

1.GAIA

- 1.1 Lan esparruko marko juridikoa: perspektiba konstituzionala eta normatiboen garapena.
- 1.2 Lan Sozietate Anonimoetan eta Sozietate Kooperatiboetan lan bazkidearen lan eralzio juridikoa
- 1.3 Gizarte Ekonomiako enpresetan lan erlazioetan ematen diren gorabeherak
- 1.4 Gizarte ekonomiako enpresetan erlazio kolektiboak eta askatasun sindikala
- 1.5 Testuinguru kooperatiboan autonomia kolektiboaren manifestazioak

2.GAIA

- 2.1 Gizarte Segurantzaren egitura
- 2.2 Erregimen orokorra eta erregimen bereziak
- 2.3 Gizarte Segurantzaren erlazio juridikoa
- 2.4 Gizarte Segurantzaren gestio eta finantziarioa
- 2.5 Erregimen orokorraren akzio defendatzailea

2.6 Babestutako kontingentziak

2.7 Ekarpenak

2.8 Erantzukizun enpresariala

3.GAIA: Gizarte Segurantzza eta Gizarte Ekonomia

3.1 Aurrekari normatiboak

3.2 Enpresa Kooperatiboak eta Lan Sozietateak gizarte segurantzaren aurrean

3.3 Kooperatibetako lan-bazkideen erregimen ekonomikoa eta erregimen berezia: aukeratzeko eskubidea

3.4 Lan elkartuko kooperatibetako langile bazkideen babesa kaleratze kasuetan

4.GAIA: Gizarte Segurantzza osagarria

4.1 Hobekuntza boluntarioak

4.2 Aurreikuspeneko mutualitateak

4.3 Pentsio planak eta fondoak

B) BALIABIDEAK

q Irakaslearen azalpen teorikoak

q Bideoak

q Transparentziak

q Dokumentazioa ematen zaie ikasleei

C) IKASLEAK

q 4 pertsona Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak burutzen ari direnak

- q 3 pertsona Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatuak
- q 11 pertsona Zuzenbideko ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Zuzenbidean lizentziatua
- q 2 pertsona Injinerutza ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Kimikan lizentziatua
- q 4 Enpresa ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Enpresa ikasketetan diplomatuak
- q 2 pertsona Erizaintza ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Erizaintzan diplomatua
- q 1 Irakasle hezkuntzan diplomatua
- q 1 Gizarte hezkuntza ikasketak burutzen ari dena
- q 2 Lan Inguruko Erlazioak ikasketak burutzen ari direnak
- q 2 Psikologia ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Gizarte lana ikasketak burutu dituenak

Guztira 37 ikaslek jaso dute kurtso hau.

D) IRAKASLEA

Sylvia Gay Herrero, Lan Zuzenbidean eta Gizarte Segurantza arloetan, EHUko eta GEZKiko irakaslea.

KURTSOA: LAN SOZIJETATEEN ETA SOZIJETATE KOOPERATIBOEN ERREGIMEN JURIDIKOA

A) EDUKIAK

- § Sozietate kooperatiboa
- § Sozietate Kooperatiben fundazioa. Sozietate Kooperatiben estatutuak
- § Sozietate Kooperatibetako bazkideak
- § Kooperatibetako organoak
- § Erregimen ekonomikoa: liburuak eta kontabilitatea
- § Estatutu sozialen aldaketa. Sozietate kooperatiboen fusioa eta banaketa
- § Sozietate kooperatiben likidazioa eta disoluzioa. Kooperatiba krisian
- § Lan Sozietate Anonimoa eta Lan Sozietate mugatua.

B) BALIABIDEAK

- q Irakasleen azalpen teorikoak
- q Bideoak
- q Transparentziak
- q Dokumentazioa ematen zaie ikasleei

C) IKASLEAK

- q 1 Industri Injinerutza Teknikoan diplomatua
- q 1 Biologian lizentziatua
- q 3 Enpresa ikasketetan diplomatua
- q 1 Zuzenbide ikasketak burutzen ari dena
- q 1 Zuzenbidean lizentziatua
- q 1 Enpresa ikasketetan lizentziatua
- q 1 Kriminologian lizentziatua

- q 2 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak burutzen ari direnak
- q 3 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatuak

Guztira 14 pertsonak burutu dute kurtso hau.

D) IRAKASLEAK

Santiago Merino Hernandez, Euskadiko kooperatiben Goreneko Kontseiluko letratua.

Javier Aldazabal Etxeberria, abokatua.

Ana M^a Puyo Arluciaga, Merkataritza Zuzenbideko irakaslea EHUko unibertsitatean.

KURTSOA: GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN ERREGIMEN FISKALA

A) EDUKIAK

- § Kooperatiben zuzenbide fiskala
- § Lan Sozietate Anonimoen fiskaltza
- § Beste Gizarte Ekonomiazko enpresa batzuen fiskaltza

B) BALIABIDEAK

- q Irakasleen azalpen teorikoak
- q Bideoak
- q Transparentziak
- q Dokumentazioa ematen zaie ikasleei

C) IKASLEAK

- q 7 Zuzenbideko ikasketak burutzen

- q 3 Industri Injinerutza diplomatua
- q 1 Zuzenbidean eta Lan Erlazioetan lizentziatua
- q 1 Elektronika Injinerutza Teknikoko ikasketak burutzen ari dena
- q 6 Enpresa ikasketetan diplomatua
- q 1 Psikologian lizentziatua
- q 2 Zuzenbidean lizentziatuak
- q 1 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza lizentziatua
- q 1 Biokimika ikasketak burutzen ari dena

Guztira 23 pertsonak burutu dute kurtsoa hau.

D) IRAKASLEA

Marco Antonio Rodrigo Ruiz, Finantza Zuzenbidea eta Zerga Zuzenbideko irakaslea EHUko unibertsitatean.

KURTSOA: SOZIJETATE KOOPERTIBOENTZAKO ENPRESA EKONOMIA

A) EDUKIAK

1. Gizarte ekonomiaren inguruko kontzeptu basikoak
2. Gizarte ekonomiako enpresen metak eta helburuak
3. Enpresa kooperatiboaren finantziario mota
4. Kasu praktikoa: MCC-ko enpresa kooperatiboek erabiltzen duten finantziario sistema
5. Kooperatibentzako marketinga
6. Kasu praktikoa: Kontsumozko kooperatibismoa

B) BALIABIDEAK

- q Irakaslearen azalpen teorikoak
- q Bideoak
- q Transparentziak
- q Dokumentazioa ematen zaie ikasleei

C) IKASLEAK

- q 3 Enpresa ikasketak burutzen ari direnak
- q 2 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatuak
- q 4 Enpresa ikasketetan diplomatuak
- q 2 pertsona Industri Injinerutza Tekniko ikasketak burutu dituztenak
- q 2 pertsona Pedagogia ikasketak burutzen ari direnak
- q 2 pertsona Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak burutzen ari direnak
- q 2 pertsona Zuzenbideko ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Lan inguruko erlazioak ikasketak burutzen ari dena
- q 2 pertsona biologiako ikasketak burutzan ari direnak
- q 1 Kimikako ikasketak burutzen ari dena

Guztira 21 pertsonak burutu dute kurtso hau.

D) IRAKASLEA

Agurtzane Begiristain eta Anjel Mari Errasti.

KURTSOA: AUTOGESTIOZKO EKONOMIA ETA KREDITU KOOPERATIBAK EUSKAL HERRIAN

A) EDUKIAK

1. Autogestioaren premisa teorikoak
2. Debate historikoa
3. Globalizazioa, lehiakortasuna eta autogestioa.
4. Merkatua eta autogestioa
5. Autogestioaren potentzialtasuna
6. Autogestioa eta hirugarren mundua
7. Kibutz-ak
8. Lanaren antolakuntza eta autogestioa
9. Teknologia berriak eta autogestioa
10. Grupo Mondragon
11. Lan Sozietate Anonimoak

B) BALIABIDEAK

- q Irakasleen azalpen teorikoak
- q Bideoak
- q Transparentziak
- q Dokumentazioa ematen zaie ikasleei

C) IKASLEAK

- q 4 Enpresa ikasketetan diplomatuak
- q 3 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatuak

- q 2 Irakasle eskola ikasketak burutzan ari direnak
- q 2 Enpresa ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Erizaintza ikasketak burutzen ari dena
- q 2 pertsona Lan erlazioen inguruko ikasketak burutzen ari dena
- q 2 pertsona Medikuntza ikasketak burutzen ari direnak
- q 1 Industri injinerutza teknikoko ikasketak burutzen ari dena
- q 1 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak burutzen ari dena

Guztira 20 pertsonak burutu dute kurtso hau.

D) IRAKASLEA

Antxon Mendizabal Etxabe, Ekonomia aplikatuko irakaslea EHUko unibertsitatean.

2.1.6. KOOPERATIBA IKASKUNTZEN INSTITUTUA (DEUSTO)

KOOPERATIBA IKASKUNTZEN ESPEZIALIZAZIO DIPLOMA

A) EDUKIAK

- q Kooperatiben erregimen fiskala (10 ordu)
- q Historia eta doktrina kooperatiboa (8 ordu)
 - § Kooperatibismoaren genesisia eta eboluzioa, autore nagusiak.
 - § Doktrina kooperatiboaren inguruko eztabaidara sarrera
 - § Ikasle bakoitzak mugimendu kooperatiboko autore garrantzitsu bati buruz burututako azterketa.
- q Kooperatiba bat sortzeko planifikazio prozesua (10 ordu)
 - § Sarrera
 - § Bideragarritasun plana
 - § Estatutu sozialak
 - § Baimenak, lizentziak eta tramiteak.
- q Kooperatiben inguruko legislazioa (13 ordu)
- q Kooperatiben europar estatutua (ordu bat)
- q Lidergoa eta kooperatibak (4 ordu)
- q Arrakasta izan duten bi kooperatiben kasua: URSSA eta FAGOR electrónica
- q Etxebizitza kooperatibak: Jatorria, gaur eguneko egoera eta etorkizunerako erronkak (2 ordu)
- q Gizarte ekonomiaren esanahia (2 ordu)
- q Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa (4 ordu)

- q Kontabilitate kooperatiboa (10 ordu)
- q Nazioarteko tendentzia legegileak (2 ordu)
- q Arrakastadun kooperatiba baten kasua: EROSKI (2 ordu)
- q Arrakastadun kooperatiben printzipio kooperatiboak (ordu bat)
- q Lan Sozietateen inguruko erregimen fiskala (2 ordu)
- q Partehartzea kooperatibetan (6 ordu)
- q Enpresa kooperatiboa (4 ordu)
- q Arbitraje kooperatiboa (3 ordu)
- q Balantze soziala kooperatibetan (9 ordu)
- q Lan sozietateak: Aspektu juridikoak (4 ordu)
- q Espainiar ikuspegi legegilea ingurune kooperatiboan (3 ordu)
- q Lan Sozietateen ingurune ekonomikoa (4 ordu)
- q Administrazioa eta kooperatibak (6 ordu)
- q Kooperatibako administrarien ardura penala

Guztira 6 ikasle matrikulatu dira ikasketa hauetan.

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak
- q Praktikak enpresetan
- q Euskadiko Kooperatiben Goreneko kontseilura, eta bertako Federazioetara bisitak
- q Caja Rural-era bisita
- q Eroskira bisita

- q Kooperatiben erregistrora bisita
- q MCC-ko egoitzara, eta Fagor electrodomesticos-era bisita
- q Emaus-Bilbao S.Coop-era bisita teknikoa
- q Garaia S.Coop-era bisita teknikoa
- q San Isidro S.Coop-era bisita teknikoa
- q Seminarioak

C) IKASLEAK

- q Zuzenbidean lizentziatua
- q 1 Humanitateak eta Enpresa 4.mailako kurtsoa egiten, aurretik Turismoan diplomatuta.
- q 1 Soziologian lizentziatua
- q 1 Humanitateak- Enpresan lizentziatua

Guztira 6 pertsonen burutu dituzte ikasketa hauek.

D) IRAKASLEAK

Eva Alonso, Dionisio Aranzadi, Jose Ramon Bringas, Pablo Buitron Andrade, Javier Divar, Arantza Echaniz, Idoia Echeberria, Alazne Mujika, Mikel Elguezabal Ulecia, Marta Enciso Santocildes, Enrique Gadea, Laura Gomez Urquijo, Ana Irazabal Meaurio, Jose Mari Larrañaga, Alejandro Martinez Charterina, Santiago Merino, Aitziber Mugarra Elorriaga, Javier Muñecas Herreras, Iñigo Nagore, Javier San Jose Barriocanal, Francisco Javier Sanz Santaolalla, Maribel Sola, Jesus Urraza.

2.1.7. ARIZMENDI

Arizmendi, Almen, San Biator, eta San Francisco Xabier ikastetxeen batuketatik sortutako Ikaskuntza kooperatiba da.

ALMEN

IKASGAIA: ENPRESEN SIMULAZIOA

Enpresen Simulazio ikasgaia, Almeneko DBH 3 eta DBH 4 mailetan ematen da urtero.

A) EDUKIAK

- q Kooperatiben inguruko historia
- q Balore eta printzipio kooperatiboak
- q Kooperatiben ezaugarriak
- q Bailarako kooperatiben adibideak

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak
- q Bideoak
- q Klase praktikoak
- q Kooperatiba batetara bisita

C) IKASLEAK

2002-2003 kurtsoko DBH 3 eta 4.mailako 24 ikaslek jaso dute ikasgai hau.

D) IRAKASLEAK

Garbiñe Astudillo, Enpresaritzan diplomatua, San Biatorreko irakasle izandakoa, gaur egun Almeneko irakaslea.

Maite Beitia, Arte Ederretan lizentziatua, Artistikako irakaslea eta dibertsifikazioko tutorea Almenen.

ALMEN, SAN FRANTZIZKO XABIER, SAN BIATOR

ARIZMENDI TXAPELKETA

Arizmendi txapelketa, Almen, San Frantzisko Xabier eta San Biator-eko ikastetxeetan egiten da urtero, 300 bat ikaslek hartzen dute parte txapelketan.

Txapelketaren helburua: Irakasleek, bailarako kooperatiben historiaren eta Arizmendiarrietaren inguruan ezagutzak garatzea eta barneratzea.

Txapelketan jarraitzen den metodologia: Ikasleei Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren inguruan lan bat burutzea planteatzen zaie. Lan hau, txapelketan parte hartzeko funtsezko betebeharra izango da. Irakasleek lan hau egiteko beharrezko izango duten materiala eta informazioa tutoreengandik eskuratuko dute. Behin lanak burutakoan ikastetxe bakoitzeko onenak aukeratzen dira, hauek izango dira txapelketan parte hartuko dutenak.

2.1.8. OTALORAKO FORMAZIO ZENTRUA

Otalorako formazio zentroak bi arlotan zuzentzen du formazio kooperatiboa, alde batetik "ORDEZKARI" izeneko programa daukagu, hau kontseilu errektoreko eta kontseilu sozialeko kideei zuzenduta dago. Bigarrena, berriz, "BAZKIDE" izeneko beste programa bat da, kooperatibako bazkideei eta kooperatiban sartzen diren langile berriei zuzenduta dago. Urtero kultura kooperatiboaren inguruko seminarioak ere egiten dira.

ORDEZKARI XXI

Programa hau urtero ematen da kooperatiba ezberdinetan, Kontseilu Errektoreko eta Kontseilu Sozialeko kideei zuzenduta dago.

KONTSEILU SOZIALEKO KIDE BERRIEI ZUZENDUTAKO PROGRAMA

Kurtsoaren helburua: Kontseilu Sozialesan sartzen den bazkideari eginbehar eta erantzukizun berri batzuk ematen zaizkio, hauek zuzentasunez aurrera eraman ahal izateko ezagutza batzuk barneratu behar ditu eta "ORDEZKARI XXI" programa ezagutza hauek transmititzen saiatzen da.

A) EDUKIAK

1. Zer da Kontseilu Soziala
 - § Lan Elkartuko kooperatiba baten estruktura
2. Kontseilu Sozialaren funtzioak
 - § Aholkularitza eta kontsulta
 - § Informazioa eta komunikazioa
 - § Gizarte kontrola
 - § Negoziazioa
3. Kontseilu Sozialaren DAFO analisia
 - § Sarrera

§ Kontseilu Sozialarentzat DAFO fitxa

4. Kontseilariaren autoebaluaketa

§ Kontseilariaren autoebaluaketa tresna

§ Autoebaluaketa kolektiborako galdetegia

§ Kontseilariaren autoebaluaketarako ariketa

§ Akzio plana

B) BALIABIDEAK

q Testuak: "MANUAL DE CONOCIMIENTOS DEL CONSEJO SOCIAL"

q Aurkezpenak Power Point-en.

Aipatu beharra dago programa hau aurrez aurreko saiotan eman izan dela orain arte, baina internet bidezko formaziora pasatzeko proiektua martxan jarrita dago. Asmoa da bi modulu on-line eratzea, bata Kooperatibaren estruktura eta barne funtzionamendua azaltzen dituen eta bestea Kontseilu Sozialaren rola azaltzen dituen.

C) KURTSOKO PARTEHARTZAILEAK

14 kooperatibak hartu dute parte formakuntza programa honetan, guztira 115 bat lagun, kooperatiba garrantzitsuenak hauek izan dira: Fagor Industrial, LKS, Fagor Electrodomesticos, Ederlan, Orona, Danona, MSI, Maier, etab.

D) KURTSOA ZUZENDU DUTENAK

Juan Inazio Aizpurua: Grupo Danobat-eko lehendakaria 12 urtez, gaur egun Otalorako zuzendaria.

Ander Etxeberria: Soziologoa, 5 urte daramatza Otaloran lanean.

Mikel Lezamiz: Soziologoa, Fagorren lanean aritutakoa, 15 urte daramatza Otaloran lanean.

KONTSEILU ERREKTOREKO KIDE BERRIEI ZUZENDUTAKO PROGRAMA

Kurtsoaren helburua: Sistema honen helburua Kontseilu Errektoreko kidea prestakuntza prozesuan sartzea da, eta prozesu horren bidez bere lana ondo betetzeko behar dituen eskuduntzen jabe egitea.

Beharrezko eskuduntzak:

1. Ikuspegi bateratuaz jokatzea
2. Kooperatiben arteko lankidetzan modu aktiboan aritzea
3. Kooperatiba kanpoan ordezkatzea
4. Kooperatibaren ondareaz arduratzea
5. Taldean erabakitzea
6. Kooperatibaren barne- demokrazia kudeatzea
7. Jarraibideak jakinaraztea
8. Zuzendaritzari laguntzea
9. Gainbegiratzea

A) KURTSOAN JARRAITUTAKO PROZESUA

1. Autoebaluaketarako galdetegia
2. Eskuduntzak ebaluatu galdetegiaren bitartez
3. Perfil ezberdinak identifikatu eta jarritako idealarekin konparatu
4. Lehentasunak antzeman eta zenbait egoeretara egokitutako formazio ikaskuntza diseinatu
5. Formazio eta garapenerako zenbait baliabide eskaintzen die kontseilu Errektoreko kideei, bi motatako baliabideak:

§ Prestakuntzarako baliabideak

§ Ohiturak finkatzeko baliabideak (gidaritza)

B) BALIABIDEAK

- q Autoebaluaketarako CD-ROM-a
- q Gidaritza

Aipatu beharra dago klase hauek aurrez aurreko saiotan eman direla, eta aurrerantzean internet bidezko formazioa kudeatzeko proiektua martxan dagoela.

GIDARITZA

Gidaritzaren eginkizun nagusia Kontseilu Errektoreko kideari garapen prozesuan laguntzea da, auto ebaluaketatik hasi eta praktika edo funtzionamendu modu berriak finkatu arte. Bere eginkizun nagusiak honako hauek dira:

1. Eskuduntzen garapenerako beharren diagnosis egiten laguntzea
2. Eskuduntzen garapenerako helburuak eta xedeak jartzeko orduan aholkua ematea
3. Eskuduntzen garapenerako Ekintza Planaren definizioa egiteko orduan aholkua ematea (prestakuntzarako ohiturak finkatzeko ekintzak)
4. Planaren inplementaziorako euskarriak eta baliabideak jartzea
5. Planaren betetze-mailaren jarraipena egin eta sortu daitezkeen arazoak konpontzen laguntzea
6. Motibazioari eusten laguntzea, garapenaren ahaleginean tinko jarraitu ahal izateko

C) KURTSOKO PARTEHARTZAILEAK

14 kooperatibak hartu dute parte formakuntza programa honetan, guztira 115 bat lagun izan dira kurtsoetan, kooperatiba garrantzitsuenak hauek izan dira: Fagor Industrial, LKS, Fagor Electrosmesticos, Ederlan, Orona, Danona, MSI, Maier, etab.

D) KURTSOA ZUZENDU DUTENAK

Juan Inazio Aizpurua: Grupo Danobat-eko lehendakaria 12 urtez, gaur egun Otorako zuzendaria.

Ander Etxeberria: Soziologoa, 5 urte daramatza Otoran lanean.

Mikel Lezamiz: Soziologoa, Fagorren lanean aritutakoa, 15 urte daramatza Otoran lanean.

BAZKIDE XXI

KOOPERATIBETAN SARTZEN DIREN PERTSONEI HARRERA EGITEKO EREDUA

“BAZKIDE XXI” kooperatibara sartu berriei zuzendutako programa bat da, internet bidez transmititzen da.

Kurtsoaren helburua: Erakundeek gero eta premia handiagoa dute sartu berriei harrera egiteko modua egituratu eta planifikatzeko, egoera berrira ahalik eta gehien laburtzeko. “BAZKIDE XXI” harrera egiteko eredua eskaintzen die kooperatibei, sartu berriei enpresan integratzen eta sozietatearekin bat egiten laguntzeko.

A) EDUKIAK

“BAZKIDE XXI” harrera egiteko eredua 8 modulutan oinarritzen da:

- § Lankideberri
- § Kooperatiba: gure proiektua
- § Pertsonen garapena
- § Kooperatiba: erakunde instituzionala
- § MCC antolamendu-egitura
- § Kooperatibismoaren historia

§ Lagun-Aro

§ Ordainketa-politika

“BAZKIDE XXI” ereduak “ Ongi etorri Kooperatibara” izeneko dossierra ere eskaintzen die kooperatibei, sartu berriari kooperatiban sartzen den egunean eman diezaioten.

B) BALIABIDEAK

Modulu bakoitza emateko bi aukera daude, eta batak ez du bestea baztertzen gainera:

§ Aurrez aurreko saioak, kooperatibako arduradun batek modulu baten edukia zuzenean pertsona-talde bati aurkezteko.

§ Intranet/Internet bidez, moduluk bakoitzak bere aldetik, bakarka, egin ditzan.

Kasu bietan eta modulu bakoitzeko, sartu berriak edukien asimilazio-mailaren autoebaluaketa egin ahal izango du.

C) EREDUKO PARTEHARTZAILEAK

Kooperatibako langile berriei, zein kooperatibako bazkide bihurtuko direnei zuzenduta dago.

2003.urtean 23 kooperatibetako 800 pertsona inguruk jaso dute hezkuntza hau. Kooperatiba horien artean esanguratsuenak hauek dira: Fagor Electrodomesticos, Grupo Orona, Alecop, L.K.S ingenieria, Mondragon Sistemas, Maier, Fagor Industrial, Edesa, Cicautxo, Kide etab.

D) SAIOAK ZUZENDU DITUZTENAK

Juan Inazio Aizpurua: Grupo Danobat-eko lehendakaria 12 urtez, eta gaur egun Otorako zuzendaria.

Ander Etxeberria: Soziologoa, 5 urte daramatza Otoran lanean.

Mikel Lezamiz: Soziologoa, Fagorren lanean aritutakoa, 15 urte daramatza Otoran lanean.

SEMINARIOA

KULTURA KOOPERATIBOAREN INGURUKO SEMINARIOAK

Urtean hamar bat seminario egiten dira.

A) EDUKIAK

1. PRINTZIPIO KOOPERATIBOAK
 - 1.1 Nazioarteko Aliantza kooperatiboa
 - 1.2 Balore kooperatiboak
 - 1.3 Printzipio kooperatiboak
2. KOOPERATIBETAKO KONTINUUM LEGALA
 - 2.1 Sarrera
 - 2.2 Kooperatiben kontinuum legala
3. LAN ELKARTUKO KOOPERATIBA BATEN OINARRIZKO EGITURA
 - 3.1 Erabakiak hartzea
 - 3.2 Lan elkartuko kooperatiba baten oinarrizko egitura

B) BALIABIDEAK

- q " Cultura Cooperativa" izeneko txostena.
- q Testuak
- q Aurkezpenak

C) SEMINARIOAN PARTE HARTU DUTENAK

2003.urtean oraingoz 2 seminario burutu dira. Seminario bakoitzean 15 bat lagunek parte hartu zuten. Gehienak unibertsitateko ikasleak ziren (goi-mailako ikasketetakoak,

lizentziatuak,...) beste batzuk berriz gizarte ekonomia bultzatzen duten erakunde ezberdinetakoak ziren.

D) HIZLARIAK

Juan Inazio Aizpurua: Grupo Danobat-eko lehendakaria 12 urtez, eta gaur egun Otalorako zuzendaria.

Mikel Lezamiz: Soziologoa, Fagorren lanean aritutakoa, 15 urte daramatza Otaloran lanean.

2.1.9 EUSKADIKO KONTSUMOKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

Euskadiko Kontsumozko kooperatiben federazioak kurtso bat bideratu du 2003.urtean. Kurtso hau Kontseilu Errektoreko kideak formatzeko asmoarekin eman da.

KURTSOA: KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEI ZUZENDUTAKO FORMAZIOA

A) EDUKIAK

Gestio estrategikoaren oinarriak

- q Oinarrizko kontzeptuak
- q Bisio estrategikoa
- q Kanpo indar konpetitiboak
- q Barne analisia
- q Posizio konpetitiboa
- q Formulazio estrategikoa
- q Etorkizuna ziurtatu

Finantzak

- q Kontabilitate sistema
- q Kostuen analisia
- q Funtzio finantzarioa
- q Analisi finantzarioa
- q Analisi ekonomikoa

Antolakuntza eta giza baliabideak

- q Antolakuntza funtzioa

- q Enpresa kultura
- q Batzarren zuzendaritza
- q Komunikazio teknikak

Enpresako kultura kooperatiboa

- q Enpresa kooperatiboa
- q Printzipio eta balore kooperatiboak
- q Giza baliabideak enpresa kooperatiboan
- q Langile eta enpresariaren integrazioa lanean

C) KURTSOKO PARTEHARTZAILEAK

Euskal Herriko kontsumoko kooperatibak: Eroski, Bideonera (Barakaldo), Michelin (Lasarte), Trabajadores Vascos (Sestao), San Migel (Oñati), Soraluze (Soraluze), Lur Alkartasuna (Aia), Unión Obrera (Arayo), San Bartolome (Zegama), Laguntasuna (Zarautz). Kooperatiba hauetako Kontseilu Errektoreko kideak eta bazkideak hartu dute parte kurtsu honetan.

D) KURTSOA ZUZENDU DUTENAK

Otalorako formakuntza zentroa.

2.1.10. EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

KURTSOA: KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEENTZAKO OINARRIZKO FORMAKUNTZA

Ondorengo kurtsoa 2001 eta 2002an eman izan da. 2003an ere emango da , baina oraindik zehaztu gabe daude zeintzuk izango diren kurtsoko hizlariak, bestalde programa aurreko kurtsoetako berdina izango da.

Kurtsoaren helburuak: Kontseilu Errektoreko kideak beraien jardura, konpetentzia, ardura eta funtzioen inguruan informatzea eta gertatzea da kurtso honen helburua.

A) EDUKIAK

1. 4/93 eta 1/2000 legeen arabera Kontseilu Erretoreko kide eta administratzaileei dagozkien erregulazioa.
2. Kontseilu Errektoreari dagozkion konpetentziak
3. Kontseilu Errektoreko kideei eta administratzaileei dagozkion funtzioak.
4. 4/93 eta 1/2000 legeen araberako ardurak
5. Dokumentazio ekonomikoaren interpretazioa
6. Zuzendari-Gerentearen erlazioa Administratzaile organoarekin.
7. Kontseilu Erretorearen sesioen garapena.
8. Erabakiak hartzea
9. Administratzaile organoaren kargu eta funtzioak.
10. Bazkidearen onarpena eta baja.
11. Diziplina espedienteak

12. Kontrol eta gestio tresnak
13. Gizarte Segurantzaren eta Aseguru pribatuak kooperatibetan
14. Aurrerapena eta ordainsaria lan aurrerakinen bitartez
15. Kontseilu Errektorearen eta Administrazio Kontseiluaren kompetentziak
16. Kontu deposituak
17. Administrazioaileak informazio eskubidearen aurrean
18. Kontseilarien bateraezintasuna eta ezgaitasuna

B) BALIABIDEAK

- q Hitzaldiak.
- q Azalpen teorikoak

C) KURTSOKO PARTEHARTZAILEAK

Lan Elkartuko kooperatiba ezberdinetako 52 kidek hartu dute parte kurtso honetan.

D) HIZLARIAK

Ondorengo hizlariak 2001 kurtsoan parte hartu zutenak dira, 2003an emango den kurtsoko hizlariak oraindik zehaztu gabe daude.

Francisco Javier Sanz: Eraginkor S.Coop-eko gerentea.

Joseba Polanco: Eraginkor S.Coop-eko zuzendari ekonomiko-finantzieroa.

KURTSOA: LANGILE BAZKIDEENTZAT FORMAZIO KOOPERATIBOA

Kurtso hau 2003 urteko urtarrilean eman zen.

Kurtsoaren helburuak: Langile bazkideei, jardueren eta kooperatibaren inguruan existitzen den marko legalaren berri eman.

A) EDUKIAK

1. Manchesterreko deklarazioa, ideia orokorrak.
2. Euskal Herriko kooperatibetako bazkideak
 - § Bazkide motak
 - § Bazkideen eskubide eta betebeharrak
 - § Bazkideen alta eta baja
 - § Informaziorako eskubidea
3. Organo sozialak
 - § Batzar orokorra
 - § Kooperatibaren administrazio eta errepresentazioa
 - § Kontseilu soziala
 - § Zaintza Batzordea
 - § Errekurtso Batzordea
4. Kooperatiben erregimen ekonomikoa
5. Dokumentazio soziala eta kontabilitatea
6. Estatutuen aldaketa
7. Lan elkartuko kooperatibentzat erregulazio espezifikoak
8. Inspezioak eta arau-haustek
9. Kooperatiben asoziazioa

B) BALIABIDEAK

Hitzaldiak.

C) KURTSOKO PARTEHARTZAILEAK

Lan Elkartuko kooperatiba ezberdinetako 49 kidek hartu zuten parte kurtso honetan.

D) HIZLARIAK

Joseba Ardanza eta Eli Martinez, ekonomia eta zuzenbidean adituak eta ERAGINKOR S.Coop-eko bazkide eta aholkulariak.

KURTSOA: SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ELABORAZIOA KOOPERATIBETAN

Ondorengo kurtsoa 2001 eta 2002an eman izan da. 2003an ere emango da, baina oraindik zehaztu gabe daude zeintzuk izango diren kurtsoko hizlariak, bestalde programa aurreko kurtsoetako berdina izango da.

Kurtsoaren helburuak: Kooperatibetan Sozietateen gaineko zerga kalkulatzeko duten langileei beharrezkoak diren ezagutzak transmititzea.

A) EDUKIAK

1. Kooperatiben erregimen fiskalaren arau foralen ezaugarri nagusiak.
2. Sozietateen gaineko zerga problematikaren inguruko esposizio laburra
3. Likidazio ariketa praktikoak:
 - § Babestutako kooperatibetan
 - § Bereiziki babestutako kooperatibetan
 - § Babestu gabeko kooperatibetan

Bereizten dira:

- a) Dimentsio txikiko eta handiko enpresak
- b) Eraitza positiboak izan dituzten enpresak eta eraitza negatiboak izan dituztenak.

B) BALIABIDEAK

Hitzaldiak.

C) KURTSOKO PARTEHARTZAILEAK

Lan Elkartuko kooperatiba ezberdinetako 36 kidek hartu zuten parte kurtsu honetan.

D) HIZLARIAK

Joseba Polanco Beldarrain, Kooperatibetako erregimen fiskalean aditua.

2.1.11. EUSKADIKO NEKAZARI KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

Ondoren azaltzen diren kurtso zein bidaiak 2002.urtean Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioak emandako formazio kooperatiboa osatzen dute.

FRUTA ETA BARAZKIEN KOMERTZIOALIZAZIOAREN ETA NEKAZAL HORNIKETA KOOPERATIBEN INGURUKO EKITALDIA

Mungiako Garaia S.Coop eta San Isidro S.Coop kooperatibetako instalaziotan eman zen ekitaldia. Kooperatiba hauetako instalazio guztiak bisitatu ziren.

A) EDUKIAK

1. Bi kooperatiba hauen eboluzio historikoa ezagutzera eman
2. Kooperatiben funtzionamendua
3. Burututako inbertsioa eta demandari egokitzeko egin dituzten adaptazioak

B) BALIABIDEAK

- q Bi kooperatibetara bisita
- q Hitzaldia

C) EKITALDIAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

Nekazal kooperatiba ezberdinetako 30 pertsonak hartu zuten parte. Hauek gerente, lehendakari zein teknikariak ziren.

D) EKITALDIA ZUZENDU DUTENAK

Unai Ibaizabal eta Jesus Pinto bi kooperatibetako gerenteak.

IRLANDAR KOOPERATIBISMOAREN INGURUKO EKITALDIA

Nekazal federazioaren egoitzan eman zen ekitaldi hau.

A) EDUKIAK

Ekitaldiaren helburua: Irlandako aspektu orokorrak eta bertako nekazaritza eta kooperatibismoaren antolakuntza ezagutzera eman.

Garla S.Coop kooperatibako instalazio berriak ezagutzeko bisita ere egin zen.

B) BALIABIDEAK

- q Hitzaldia

C) EKITALDIAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

Nekazal kooperatiba ezberdinetako 50 gerente, lehendakari eta teknikarik hartu zuten parte ekitaldian, guzti hauek aurretik Irlandara eginiko bidai teknikoan izan ziren.

D) HIZLARIA

Roco Caira, Bilboko Kotsulatuko kantzilerra eta Nazioarteko Zuzenbidean abokatua.

KOOPERATIBISMOAREN INGURUKO EKITALDIA

Ribabellosan eman zen ekitaldi hau.

A) EDUKIAK

Ekitaldiaren helburua: Nekazal kooperatiba modelo ezberdinak ezagutzera eman, eta barne kooperazioa bultzatu nekazal sektorean ematen diren erronkei aurre egiteko tresna bezala.

B) BALIABIDEAK

- q Hitzaldia
- q Kooperatiba batetara bisita

C) EKITALDIAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

Nekazal kooperatiba ezberdinetako 30 gerente, lehendakari eta teknikarik parte hartu zuten ekitaldian.

D) HIZLARIAK

Andres Montero, Nekazaritza eta Arrantza ministerioko zuzendaria, nekazal kooperatibetan aditua, hainbat liburu idatzi ditu kooperatiben integrazioaren inguruan.

IRLANDARA BIDAI TEKNIKOA

2002ko Irailaren 23tik 29ra bitartean Irlandara bidai bat burutu zen.

Bidaiaren helburua: Irlandako nekazaritza ezagutu eta bertako kooperatiba berriak eta arrakasta izan duten kooperatibak ezagutu. Bidai hau, aprobetxatu zen baita ere jarduera ezberdinak dituzten kooperatibetako kideen arteko harremanak sustatzeko.

BIDAIA PARTU HARTU DUTEN KOOPERATIBAK

- § AGA S.Coop.
- § Behi-Alde S.Coop
- § Caja Rural Vasca S.Coop
- § Cocefor S.Coop
- § CUMA Valles Alaveses S.Coop
- § Departamento de Agricultura del Gobierno Vasco
- § Direccion Desarrollo Rural del MAYPA
- § Escuela Agraria de Arkaute
- § Fundacion Kalitatea
- § Gurelesa S.Coop
- § GUVAC S.Coop

- § Lacorzanilla S.Coop
- § Lantaron S.Coop
- § Lorra S.Coop
- § Miba S.Coop
- § N^a S^a de Izaskun S. Coop
- § Sagral S.Coop
- § San Formerio de la Sierra S. Coop
- § San Isidro de Mungia S .Coop
- § SERGAL
- § Udapa S.Coop
- § Agricola Ganadera de Zamudio-Derio S. Coop

Kooperatiba hauetako 51 pertsona joan ziren Irlandako bidaiara.

EUSKAL HERRIKO NEKAZAL KOOPERATIBISMOAREN HEDAKUNTZA PROGRAMA

Euskadiko Irakaskuntza federazioarekin bat, ESOk lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzenduriko programa bat eman zen Euskal Herriko Nekazal kooperatibismoaren inguruan.

A) EDUKIAK

- § Kooperatibismoa, iraultza industrial, XXI.mendea.
- § Nekazaritza eta nekazal industria Euskal Komunitatea Autonomoan

B) BALIABIDEAK

- q Klase teorikoak (hitzaldiak)

q IPARLAT kooperatibara bisita

C) IKASLEAK

ESO lehen eta bigarren mailako 200 ikaslek jaso zuten kurtso hau.

NEKAZAL HUSTIAKUNTZA KOMUNITARIOKO KOOPERATIBEN INGURUKO KURTSOA

Kurtso hau Lacervillako Gizarte zentroan eman zen.

Kurtsoaren helburua: Ustiakuntza komunitarioko nekazal kooperatiba baten funtzionamendua ezagutu.

A)KURTSOAN PARTE HARTU DUTENAK

Kurtso hau nekazariei eta batez ere CECA TXULATO KOOP.E.ko

bazkideei zuzendu zen. Guztira 15 pertsonak jaso zuten kurtsoa.

B) HIZLARIA

Martin Uriarte, LORRA KOOP.E.ko gerentea.

ITALIAR KOOPERATIBISMOAREN INGURUKO EKITALDIA

Ekitaldia Euskal Herriko Nekazal kooperatiben Federazioan burutu zen.

Ekitaldiaren helburua: Italiako aspektu orokorrak azaldu, eta bere nekazaritza eta antolakuntza kooperatiboa ezagutu.

A) EKITALDIAN PARTE HARTU DUTENAK

Ekitaldi hau ondoren Italiako bidai teknikoan parte hartuko duten kooperatibetako teknikariei zuzenduta dago. Guztira 26 kooperatibetako 50 pertsona izan ziren ekitaldian.

B) HIZLARIA

Italiako Kotsula eta Kotsulordea.

ITALIARA BIDAI TEKNIKOA

2002ko Irailaren 17tik 24ra bitartean Italiara bidai tekniko bat burutu zen.

Bidaiaren helburua: Irlandako nekazaritza, bertako kooperatiba berriak eta arrakasta izan duten kooperatibak ezagutu. Bidaia turismoa egiteko eta partehartzaileen arteko erlazioak sustatzeko aprobeixatu zen.

BIDAIRA JOAN DIREN PERTSONAK

Guztira 26 kooperatiba ezberdinetako 50 pertsonak burutu zuten bidaia.

2.2. Emaitzen laburpena taulatan

Ondorengo orrialdeetan aurretik jasotako emaitzen sailkapena azaltzen da. Sailkapen hau taula bidez egin da eta erabilitako irizpideak honakoak izan dira:

Erakunde motak: Unibertsitatea, Ikastola, Euskadiko Kooperatiben Goreneko Kontseilua, Otorako formazio zentroa.

Erakundearen izena: Goi Eskola Politeknikoa, Humanitateak eta Hezkuntza zientzien Fakultatea, Enpresa Zientzien Fakultatea, Arizmendi, GEZKI, Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua, Kontsumoko Kooperatiben Federazioa, Lan elkartuko Kooperatiben Federazioa, Nekazari Kooperatiben Federazioa.








Hezkuntza: Jasotako hezkuntzaren izenburua eta zein hezkuntza mota den, kurtsoa, ikasgaia, ekitaldia, seminarioa, bidai teknikoa, ikaskuntza programa etab.

Ikasle edo entzule kopurua: Hezkuntza jaso duten pertsona kopuru zehatza.

Irakasleak, hizlariak...: Hezkuntza bideratu duten pertsonen perfil profesionala.

Metodologia eta baliabideak: Hezkuntza aurrera eramateko erabili diren baliabideak, hitzaldiak, azalpen teorikoak, kasu praktikoak, kooperatibetara bitak, etab.

Azpimarratu beharreko beste irizpide bat hezkuntza kooperatibo mota desberdinen sailkapena da. Hezkuntza mota desberdinak ondorengo taldeetan banatu dira:

-  Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, printzipioak eta baloreak
-  Gestio eredu kooperatiboa
-  Arlo juridikoa
-  Kooperatibismo orokorra
-  Arlo guztiak
-  Kooperatiben antolakuntza eta egitura (organoak eta hauen funtzioak)
-  Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoa

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE, ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK...	ORDU KOPURUA
UNIBERTSITATEAK	ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOA	Hezkuntza Kooperatiboa (kurtsoa)	35	Jose M ^a Larrañaga	48
		Langile berriei zuzendutako hezkuntza kooperatiboa	30	Jose M ^a Larrañaga	40
		Pertsonen inguruko politika (ikasgaia)	386	Jose M ^a Larrañaga	12
	ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA (ETEO)	Enpresa Kooperatiboa (ikasgaia)	18	Rafa Altuna	40
		Enpresa Zuzendaritzako masterra	23	Jose M ^a Larrañaga	4
		Zuzendaritza Finantzieroko masterra	17	Jose M ^a Larrañaga	4

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE, ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK...	ORDU KOPURUA
UNIBERTSITATEA	HUMANITATEAK ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA (HUHEZI)	Kooperatibismoa eta Enpresaren kudeaketa (ikasgaia)	70	Joseba Azkarraga	40
		Filosofia (ikasgaia)	60	Jon Sarasua	80
		Merkataritza Zuzenbidea (ikasgaia)	60	Aitziber Arregi, Peio Barandiaran	14
		Lan Zuzenbidea eta Zuzenbide fiskala (ikasgaia)	70	Aitziber Arregi, Peio Barandiaran	40
		Enpresa proiektuen zuzendaritzako masterra	25	Jon Sarasua	40
UNIBERTSITATEKO ERAKUNDEA	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GIZARTE-EKONOMIA ETA ZUZENBIDE KOOPERATIBOAREN INSTITUTUA (GEZKI)	Gizarte ekonomiako enpresetan, lan erlazioak eta gizarte segurantzza (kurtsoa)	37	Sylvia Gay Herrero	20

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE ETA ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK...	ORDU KOPURUA
UNIBERTSITATEKO ERAKUNDEA	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GIZARTE-EKONOMIA ETA ZUZENBIDE KOOPERATIBOAREN INSTITUTUA (GEZKI)	Lan Sozietateen eta Sozietate kooperatiboen erregimen juridikoa (kurtsoa)	14	Santiago Merino Hernandez, Javier Aldazabal Etxeberria, Ana M ^a Puyo Arluciaga.	20
		Gizarte ekonomiako enpresen erregimen fiskala (kurtsoa)	23	Marco Antonio Rodrigo Ruiz	20
		Enpresa ekonomia Sozietate Kooperatiboetan (kurtsoa)	21	Agurtzane Begiristain, Anjel Mari Errasti.	20
		Autogestiozko ekonomia eta kreditu kooperatibak Euskal Herrian (kurtsoa)	20	Antxon Mendizabal Etxabe	20
	DONOSTIAKO ZUZENBIDEKO FAKULTATEA (EHU)	Merkataritza zuzenbidea (ikasgaia)	400	Jose Maria Suso Vidal	40

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE EDO ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK...	ORDU KOPURUA
UNIBERTSITATEKO ERAKUNDEA	KOOPERATIBA IKASKUNTZEN INSTITUTUA (DEUSTO)	Kooperatiba Ikaskuntzen espezializazio diploma	6	Aitziber Mugarra	124
IKASTOLAK	ARIZMENDI (Almen, San Biator, San Frantzisko Xabier)	Arizmendarrieta txapelketa	300	*	10
	ALMEN	Enpresen simulazioa (ikasgaia)	24	Garbiñe Astudillo, Maite Beitia	30
FORMAKUNTZA ZENTRUA	OTALORA	Kontseilu Sozialeko kide berriei zuzendutako programa	115	Juan Inazio Aizpurua, Ander Etxeberria, Mikel Lezamiz.	72

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE EDO ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK...	ORDU KOPURUA
FORMAKUNTZA ZENTRUA	OTALORA	Kontseilu Errektoreko kideei zuzendutako programa	115	Juan Inazio Aizpurua, Ander Etxeberria, Mikel Lezamiz.	72
		Kooperatiban sartzen diren pertsonen harrera egiteko eredua	800	Juan Inazio Aizpurua, Ander Etxeberria, Mikel Lezamiz.	16
		Kultura Kooperatiboaren inguruko seminarioa	30	Juan Inazio Aizpurua, Mikel Lezamiz	32
	EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	Kontseilu Errektoreko kideentzako oinarritzko formakuntza (kurtsoa)	52	Francisco Javier Sanz, Joseva Polanco.	8

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE EDO ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK...	ORDU KOPURUA
EUSKADIKO KOOPERATIBEN GORENEKO KONTSEILUA	EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	Langile bazkideentzat formazio kooperatiboa	49	Joseba Ardanza, Eli Martinez.	9
		Sozietateen gaineko zerga egiteko jarraitu beharreko pausuak Sozietate Kooperatiboetan	36	Joseba Polanco Beldarrain.	6
	EUSKADIKO NEKAZARITZA KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	Fruta eta barazki komertzializazioaren eta Nekazal Horniketa Kooperatiben inguruko ekitaldia	30	Unai Ibaizabal, Jesus Pinto	5
		Irlandako Kooperatibismoaren inguruko ekitaldia	50	Roco Caira	5
		Kooperatibismoaren inguruko ekitaldia	30	Andres Montero	5
		Irlandara bidai teknikoak	51	*	30

ERAKUNDE MOTA	ERAKUNDEAREN IZENA	HEZKUNTZA	IKASLE EDO ENTZULE KOPURUA	IRAKASLEAK, HIZLARIAK....	ORDU KOPURUA
EUSKADIKO KOOPERATIBEN GORENEKO KONTSEILUA	EUSKADIKO NEKAZARITZA KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	EAE-ko Nekazal Kooperatibismoaren hedakuntza programa	200	*	15
		Nekazal Ustiakuntza komunitarioko kooperatiben inguruko kurtsoa	15	Martin Uriarte	30
		Italiar Kooperatibismoaren inguruko ekitaldia	50	Italiako Kotsula, eta Kotsulordea	5
		Italiara bidai tekniko	50	*	35
	EUSKADIKO KONTSUMOKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	Kontseilu Errektoreko kideei zuzendutako formazioa	50	Otalorako formazio zentrua.	7

Aurreko tauletan, Hezkuntza Kooperatiboaren inguruko ikerkuntzan bildutako datuen laburpena agertzen da. Datu hauetan erreparatuz, ikus genezake Unibertsitateetan Hezkuntza Kooperatiboak ez duela toki handirik hartzen, eta tokia hartzen duen kasu gehienetan arlo juridikoaren bidetik izaten dela. Mondragon Unibertsitateko, Eskola Politeknikoan, ETEOn eta HUHEZIKo fakultateetan Hezkuntza Kooperatiboari irakaskuntzan toki bat egiteko saiakera nabarmentzen da, baina esan genezake hauetan ematen den hezkuntza ez dela gehiegizkoa. HUHEZIn hezkuntza kooperatiboaren arlo ezberdinetan jarduten duten hainbat ikasgai eta irakaskuntza molde aurki ditzakegu. Deuston berriz, Espezializazio diploma bakarra dugu eta honetaz aparte ez da besterik ematen. Aipatzekoa da Euskal Herriko Unibertsitatean honen inguruan egiten den lan urria. EHU-ko lizentziatura eta diplomaturetan, Zuzenbideko lizentziaturan izan ezik, ez da Kooperatibismoaren inguruan aipamenik egiten. Izan ere GEZKI institutua da Kooperatibismoarekin zerikusia duten kurtsoak zuzentzera dedikatzen dena. Hauen lana beste ikastetxe edo zentroekin alderatuz nahiko garrantzitsua dela esan daiteke. GEZKIn ematen diren kurtso gehienak Kooperatiben arlo juridikoarekin eta Gestio Eredu Kooperatiboarekin lotuta daude, ez da Kooperatibismoaren historia, baloreak, pentsamendua ipartzat duten kurtsoak ematen.

Ikastolen kasua ere esanguratsua da, taulan Hezkuntza Kooperatiboa bultzatzen duen Ikastola talde bakarra agertzen da, Arizmendi hain zuzen. Arizmendi hiru ikastetxe desberdinek osatzen dute; San Biator, Almen eta San Frantzisko Xabier-ek, hauek, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa beraien ikasleei ezagutzera emateko asmoz urtean behin txapelketa bat egiten dute, honela ikasleek gai honen inguruan beraien kabuz ikertzeko aukera izaten dute. Almenen, aukera askeko beste ikasgai bat ere badago, hau kooperatiben sorkuntzaren inguruan aritzen da. Ikastolei dagokionez, hori izango litzateke ematen den hezkuntza kooperatibo guztia, lan nahiko eskasa dela azpimarra daiteke kontutan hartuta EAEan dauden Irakaskuntza kooperatiba guztien kopurua. Kooperatiba diren ikastolek beraien sustraiak ezagutzera eman beharko lituzkete eta kooperatibismoaren historiaren inguruan gehiago sakondu beharko lukete.


Formakuntza zentro garrantzitsu bat Otalora dugu, hemen kooperatibako langileen formazioa zuzentzen da. Organo sozialetako kideei eta kooperatiban barneratzen diren bazkide berriei zuzendutako formazio garrantzitsua egiten da. Bertan, hezkuntza kooperatiboaren arlo guztiak biltzen dituen hezkuntza ere ematen da. Hezkuntza mota hau, interesgarriena eta aberasgarriena suerta daiteke kooperatibismoaren arlo guztiak bere baitan hartzen dituelako.

Beste hezkuntza iturri bat Euskadiko Kooperatiben Federazioan aurki daiteke. Bertan antzematen da eskaintzen den formazioa Gestio eredu Kooperatiboarekin lotura handia duela. Federazioek eskaintako hezkuntza, ekitaldi eta hitzaldietan zentratzen da batez ere. Esan daiteke, hitzaldi eta kurtso hauek ez dutela sakontasun handirik hartzen, bost sei ordukoak izaten dira, gehienez ere 15 orduetara luzatuz. Nekazal Kooperatiben Federazioetan erabilitako beste teknika edo baliabide bat bidai teknikoak dira, beste hiri edo lurralde batzuetako Kooperatibismoa ezagutzeko eta beste kooperatibista batzuekin kontaktuan jartzeko bidaiak antolatzen dira. Orokorrean, Federazioetan sakontasun eskasa sumatzen da, kurtsoak eta ekitaldiak aukeratzeko orduan, kooperatibismoaren historia, pentsamendua eta printzipioak ez dute egitarauetan lekurik hartzen, airean gelditzen dira, Gestio eredu Kooperatiboa nagusitzen da hauen aurretik.

2.3 Eraitzen analisia grafikatan

2002-2003 URTEAN EAEan EMANDAKO HEZKUNTZA KOOPERATIBOIA

HEZKUNTZA MOTA	KURTSO, SEMINARIO, IKASGAI ,...KOPURUA				
	UNIBERTSITATEAK	IKASTOLAK	FEDERAZIOAK	OTALORA	GUZTIRA
Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, printzipioak eta baloreak	6	1	1	0	8
Gestio Eredu Kooperatiboa	2	1	7	0	10
Kooperatibismo orokorra	1	0	0	0	1
Kooperatiben arlo juridikoa	6	0	1	0	7
Arlo guztiak	3	0	2	2	7
Kooperatiben antolakuntza eta egitura	0	0	0	2	2
Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoa	0	0	1	0	1
Guztira	18	2	12	4	36



Aurreko grafikoa aztertuz ikus dezakegu Gestio eredu Kooperatiboa dela gehien nabarmentzen den hezkuntza, hau, batik bat Euskadiko Kooperatiben Federazioetan ematen da. Hemen, Federazioen praktikotasuna nabarmentzen da, kooperatibako alde praktikoak garatzen baitituzte nagusiki. Unibertsitate eta ikastoletan ere aurki ditzakegu gestio eredu kooperatiboaz hitz egiten duten ikasgai edo kurtsoak, baina batez ere federazioek landutako arlo bat dela esan daiteke.

Bigarren arlo landuena Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, baloreak eta printzipioetat mintzatzen dena da. Hezkuntza mota hau unibertsitateetan ematen da ikasgai eran. Esan genezake, HUHEZIKo fakultatea dela unibertsitate guztietatik arlo honetan gehien sakontzen duena. Bestalde, ikastoletan ere egiten da zerbait honen inguruan. Ikastoletan erabilitako formatoa txapelketa da, ikasleek bere kabuz ikertu behar izaten dute gai hau. Nekazari Kooperatiben Federazioan ere ematen da kurtso bat Kooperatibismoaren pentsamendu eta historiaren inguruan, kurtso hau formakuntza hori ESOko ikasleei zuzenduta egoten da eta ez kooperatibetako bazkideei.

Grafikako hirugarren postuan bi hezkuntza mota aurki ditzakegu. Alde batetik arlo guztiak biltzen dituen hezkuntza kooperatiboa dugu. Hezkuntza mota hau aberasgarriena eta interesgarriena suertatzen da, hezkuntza kooperatiboa bere osotasunean aztertzen duelako. Hezkuntza hau, batez ere unibertsitateetan aurki dezakegu baina Kooperatiben Federazioetan eta Otaloran ere ematen da zerbait. Unibertsitate guztietatik Deustoko fakultatea da arlo honetan gehien sakontzen duena, bertan Kooperatiba Ikaskuntzen Espezializazio diplomako ikasketak burutzen dira. ETEOn ere, masterretan pare bat hitzaldi ematen dira Kooperatibismoaren arlo guztien azterketa eginez. Aurretik aipatu dugun beste hezkuntza arlo juridikoaz mintzatzen dena dugu, honen portzentaia aurrekoarekin parekatuta dago. Horrelako formazioa bereiziki unibertsitateetan aurkitzen dugu, Kooperatiben Federazioetan ere badago kurtsoen bat honen inguruan aritzen dena, baina orokorrean GEZKI, EHU eta HUHEZItik zuzentzen dira kooperatiben arlo juridikoaz mintzatzen diren ikasgaiak.


Kooperatiben antolakuntza eta egiturari dagokionez, hezkuntza mota hau Otaloratik bakarrik zuzentzen da. Kooperatibako organo sozialetan dauden pertsoneri bideratuta egoten da, hauek betetzen dituzten karguei dagozkien ardura eta eginbeharrak irakastea du helburu.

Kooperatiben antolakuntza, egitura eta arlo juridikoa elkartzen dituen hezkuntzari dagokionez, hau Federazioetan bakarrik ematen da. Honen inguruan Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak kurtso bat antolatzen du urtero.

Azkenik kooperatibismoa orokorrean aztertzen duen hezkuntza dugu, hau Arrasateko Goi Eskola Politeknikoa ematen da, bertan sartzen diren bazkide berriei zuzenduta egoten da eta berrogei ordu inguruko kurtso bat izaten da.

2002-2003 URTEAN EAEan EMAN DEN HEZKUNTZA KOOPERATIBOAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

HEZKUNTZA MOTA	PERTSONA KOPURUA				
	UNIBERTSITATEA	IKASTOLAK	FEDERAZIOAK	OTALORA	GUZTIRA
Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, printzipioak eta baloreak	594	300	200	0	1094
Gestio Eredu Kooperatiboa	41	24	276	0	341
Kooperatibismo orokorra	30	0	0	0	30
Kooperatiben arlo juridikoa	604	0	36	0	640
Arlo guztiak	46	0	99	830	975
Kooperatiben antolakuntza eta egitura	0	0	0	230	230
Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoak	0	0	52	0	52
Guztira	1315	324	663	1060	3362



Ondorengo grafikoan hezkuntza mota desberdinetan parte hartutako pertsona kopurua aztertzen da. Grafikoan ikus dezakeguz pertsona kopuru gehien bildu dituen hezkuntza kooperatibismoaren historia, pentsamendu, balore eta printzipioetaz mintzatzen dena da. Grafikoan argi ikus daiteke horrelako hezkuntza gehienbat unibertsitateetan ematen dela, batez ere HUHEZIKo fakultatean. Goi eskola Politeknikoan ere pertsona askok jasotzen dute hezkuntza mota hau, baina ez da modu zuzenean transmititzen, beste ikasgai baten barneratuta egoten da. Ikastoletan, Arizmendin adibidez 300 pertsona inguruk jasotzen dute formazio hau baina ez da sakontasunez aztertzen, ikasleek kooperatibismoaren inguruko kontzeptuak txapelketa baten bitartez barneratzen dituzte eta ez da gaietan askorik sakontzen. Nekazaritza federaziotik ere zuzentzen da kurtso bat ESOkoko ikasleentzat, bertan 200 pertsona inguruk parte hartzen dute.

Pertsona kopuru gehien jaso duen bigarren hezkuntza Kooperatibismoaren arlo guztiak ukitzen dituen da, 975 pertsonak parte hartu dute horrelako saioretan. Hezkuntza mota hau Otaloratik zuzentzen da batez ere, eta kooperatiban sartzen diren bazkide berriei zuzenduta egoten da. Unibertsitate eta Federazioetan ere zerbait ematen da arlo honen inguruan, baina Otalora da transmisio gune garrantzitsuena.

Grafikako hirugarren postuan Kooperatiben arlo juridikoa aurki dezakegu, hezkuntza honek 640 pertsona biltzen ditu. Esan beharra dago hezkuntza hau bereiziki unibertsitateetan ematen dela zuzenbideko ikasgaiekin bat. Federazioetan ere badago kurtso bat honen inguruan aritzen dena, baina gune zentrala unibertsitateak direla esan daiteke.


Laugarrenik Gestio eredu kooperatiboa dugu, honek 341 pertsona biltzen ditu. Horrelako hezkuntza Nekazari Kooperatiben Federazioan ematen da batez ere, ekitaldi, bidai tekniko eta hitzaldi bidez transmititzen zaie bazkideei. Ekitaldiak iraupen gutxikoak izaten dira, 5 ordu ingurukoak, bertan Nekazaritza kooperatiba desberdinen azterketa burutzen da. Arrakasta izan duten kooperatibak eta beraien funtzionamendua izaten da ekitaldi hauetako gai nagusia.

Bosgarren postuan berriz, kooperatiben antolakuntza eta egituraz jarduten duen hezkuntza dugu. Hau, Otalorak zuzentzen du, kooperatibako organo sozialetan dauden pertsonentzat izaten da. Bazkide hauei dagozkien ardurak eta funtzioak irakasteko programak erabiltzen dira, programa hauek nahiko sakontasun izaten dute, 72 ordu inguru irauten dute.

Pertsona kopuru gutxien bildu duten hezkuntzak Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoa batzen dituena eta Kooperatibismoa orokorrean hartzen duena ditugu. Bi hezkuntza mota hauek ez dira oso komunak izaten, horregatik uler daiteke hauen arrakasta eza.

2002-2003 URTEAN EAEan EMANDAKO IRAKASKUNTZA MOTAK

IRAKASKUNTZA MOTA	KOPURUA
Ikasgaia (lauhilabete bat edo gehiagoko iraupena izan duen hezkuntza)	9
Kurtsoa (hilabete bat edo gutxiagoko iraupena izan duen hezkuntza)	8
Seminarioa	1
Kooperatibismoaren inguruko ekitaldi edo hitzaldiak	7
Postgradoko ikasketak	1
Langile berriei zuzendutako hezkuntza saioak	5
Masterrak	3
Bidai teknikoak	2
Guztira	36



- Ikasgaia
- kurtsoa
- Seminarioa
- Kooperatibismoaren inguruko ekitaldi edo hitzaldiak
- Postgradoko ikasketak
- Langileei zuzendutako hezkuntza saioak
- Masterra
- Bidai teknikoak

Aurreko bi grafikoetan hezkuntza kooperatibo motak eta hauetan parte hartu duten pertsona kopurua aztertu dugu. Hirugarren grafiko honetan berriz hezkuntza mota desberdinak zuzentzeko erabili den irakaskuntza formatuak ikusiko ditugu.

Gehien nabarmentzen den irakaskuntza ikasgai eran emandakoa da. Hezkuntza Kooperatibo guztitik %25 ikasgai eran ematen da. Irakaskuntza mota hau erabiltzen dituzten erakundeak unibertsitateak eta Deustoko fakultatea dira.

Azpitarragarria den bigarren irakaskuntza mota kurtsoak dira. Hauek, toki desberdinetan ematen dira, unibertsitate, federazio eta bestalakoetan. Kurtsoek hezkuntza guztitik %22ko portzentaia osatzen dute, esan daiteke ikasgaiekin bat, hauen presentzia hezkuntza kooperatiboan esanguratsua dela.


Hirugarren datu aipagarria kooperatibismoaren inguruko ekitaldi eta hitzaldiei buruzkoa da, %19ko portzentaia biltzen dute, eta nahiko toki hartzen dute hezkuntza kooperatiboa bideratzeko irakaskuntza modeloan. Aipatu behar da ekitaldi eta hitzaldi gehienak Kooperatiben Goreneko Kontseiluko Federazioek antolatzen dituztela.

Grafikako sailkapenean laugarren postuan Kooperatibako langileei zuzendutako saioak agertzen dira. Hauek, aurrekoek baino portzentaia txikiagoa osatzen dute, %14koa, baina behetik dauden portzentajeekin eta goikoekin alderatuz erdibidean daudela esan daiteke. Horrelako saioak Otoratik eta Federazioetatik zuzentzen dira.

Sailkapeneko azken postuetan, portzentaia handienetik txikienera honako irakaskuntza modeloak aurki daitezke: Masterrak, Bidai teknikoak, seminarioak eta goi mailako ikasketak. Guzti hauek oso portzentaia baxuak osatzen dituzte.

2002-2003 EAEan EMANDAKO HEZKUNTZA KOOPERATIBOAREN ORDU KOPURUAK

HEZKUNTZA MOTA	ORDU KOPURUA				
	UNIBERTSITATEA	IKASTOLAK	FEDERAZIOAK	OTALORA	GUZTIRA
Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, printzipioak eta baloreak	260	10	15	0	285
Gestio Eredu Kooperatiboa	40	30	115	0	185
Kooperatibismo orokorra	40	0	0	0	40
Kooperatiben arlo juridikoa	154	0	6	0	160
Arlo guztiak	132	0	16	48	196
Kooperatiben antolakuntza eta egitura	0	0	0	144	144
Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoak	0	0	8	0	8
Guztira	626	40	160	192	1018



Aurreko grafikoan hezkuntza mota ezberdinak irakasteko eskaini diren ordu kopuruen adierazpena egiten da. Ordu kopuru gehien hartzen dituen hezkuntza kooperatibismoaren historia, baloreak etab ukitzen dituen da. Horrelako hezkuntzan guztira 285 ordu eskaini dira. Hau logikoa da, aurreko grafikoetan ere pertsona gehien bildu dituen hezkuntza delako, eta ikasgai eta kurtso gehien eskaini direlako hezkuntza mota hau irakasteko. Beste grafikoetan ikusi ahal izan den bezala, unibertsitateak dira hezkuntza kooperatiboaren irakaskuntzan ordu gehien eman dituztenak.

Ordu kopuru gehien bildu dituen bigarren hezkuntza Kooperatibismoaren arlo guztietatik edaten duena. Hezkuntza mota hau irakasteko orduan unibertsitateak izan dira denbora gehien eskaini dutenak. Honek pisuzko arrazoi bat izan dezake, izan ere Deustoko unibertsitatean Kooperatiba Ikaskuntzen Espezializazio diploma aurki dezakegu, eta hau arlo guztiak biltzen dituen hezkuntza kooperatiboaren barruan sailkatuta agertzen da. Goi mailako ikasketa hauek 124 ordu inguruko iraupena hartzen dute.

Hirugarren postuan azaltzen den hezkuntza Gestio eredu kooperatiboa irakasten duena da. Hezkuntza hau bereiziki Euskadiko Kooperatiben Federazioetan ematen da, ekitaldi, hitzaldi, eta bidai teknikoen bitartez. Unibertsitateetan ere ematen da zerbait Gestio Eredu Kooperatiboaren inguruan, eta Ikastoletan ere badago ikasgai bat, baina orokorrean Euskadiko Kooperatiben Federazioetatik zuzentzen da eta Kooperatibetako bazkideei zuzenduta egoten da. Horrelako hezkuntza transmititzera 185 ordu eskaini dira.

Laugarren postuan Kooperatiben arlo juridikoa aurkitzen dugu, honi 160 ordu eskaini zaizkio. Hezkuntza hau unibertsitateetan ematen da bereiziki. Federazioetan sei ordu besterik ez zaizkio eskaini arlo honi.


Bosgarren Kooperatiben antolakuntza eta egitura irakasten dituen hezkuntza Kooperatiboa dugu. Honi urtean 144 ordu eskaintzen zaizkio eta guztiak Otaloratik zuzentzen dira.

Azken aurreko hezkuntza, Kooperatibismoa orokorrean hartzen duena dugu, hezkuntza hau unibertsitatean ematen da, Goi Eskola Politeknikoan hain zuzen. Honetan 40 ordu ematen dira eta langile berriei zuzendutako hezkuntza izaten da.

Azkenik Kooperatibismoaren antolakuntza eta arlo juridikoa biltzen dituen hezkuntza dugu. Hau Lan elkartuko Kooperatiben Federazioan ematen da eta 8 orduko kurtso bat izaten da.

2002-2003 URTEAN EAEko ERAKUNDEETAN EMANDAKO HEZKUNTZA MOTA

ERAKUNDEA	IKASGAI, KURTSO, SEMINARIO... KOPURUA							
	Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, printzipioak eta baloreak	Gestio Eredu Kooperatiboa	Kooperatibismo orokorra	Kooperatiben arlo juridikoa	Arlo guztiak	Kooperatiben antolakuntza eta egitura	Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoak	Guztira
UNIBERTSITATEA	6	2	1	6	3	0	0	18
IKASTOLAK	1	1	0	0	0	0	0	2
FEDERAZIOAK	1	7	0	1	2	0	1	12
OTALORA	0	0	0	0	2	2	0	4
GUZTIRA	8	10	1	7	7	2	1	36



Ondorengo grafikoan sektore edo gune bakoitzean ematen diren hezkuntza motak aztertzen dira. Unibertsitateei dagokionez ikus dezakegu bertan nagusitzen diren hezkuntzak bi direla, alde batetik kooperatibismoaren historia, pentsamenduaz aritzen dena eta beste aldetik Kooperatiben arlo juridikoaz mintzatzen den hezkuntza. Unibertsitateetan lantzen den hirugarren hezkuntza Arlo guztiak biltzen dituena da, ondoren gestio eredu kooperatiboa daukagu eta azkenik kooperatibismo orokorra. Esan beharra dago unibertsitateetan kooperatiben antolakuntza eta egiturari buruz ez dela ezer ematen.


Hezkuntza orokorrari edota Ikastolei dagokionez bertan Kooperatibismoaren inguruko bi arlo besterik ez dira ematen. Alde batetik Kooperatibismoaren historia, pentsamendua eta baloreetaz mintzatzen den arloa dago, hau irakasteko txapelketa bat antolatzen da. Beste aldetik Gestio eredu Kooperatiboa dugu, gai hau beste ikasgai baten barnean jorratzen da.

Euskadiko Kooperatiben Federazioetan orokorrean gai guztiak eskaintzen dira baina nagusitzen den arloa Gestio eredu Kooperatiboa da. Besteekin alderatuz, nahiko esanguratsua suertatzen da. Aipatu beharra dago Kooperatibismoaren arlo guztiak ukitzen dituen hezkuntza ere nahiko lantzen dela.

Otalaran berriz, bi hezkuntza mota besterik ez dira irakasten, Kooperatiben antolakuntza eta egitura aztertzen dituena eta Arlo guztiak biltzen dituen hezkuntza kooperatiboa.

2002-2003 EAEan ERAKUNDEETAN EMANDAKO HEZKUNTZA KOOPEATIBOAREN ORDU KOPURUAK

ERAKUNDEA	ORDU KOPURUA							
	Kooperatibismoaren historia, pentsamendua, printzipioak eta baloreak	Gestio Eredu Kooperatiboa	Kooperatibismo orokorra	Kooperatiben arlo juridikoa	Arlo guztiak	Kooperatiben antolakuntza eta egitura	Kooperatiben antolakuntza eta arlo juridikoak	Guztira
UNIBERTSITATEA	260	40	40	154	132	0	0	626
IKASTOLAK	10	30	0	0	0	0	0	40
FEDERAZIOAK	15	115	0	6	16	0	8	160
OTALORA	0	0	0	0	48	144	0	192
GUZTIRA	285	185	40	160	196	144	8	1018



Aurreko grafikoan ikus dezakegu gunee bakoitzak zenbat ordu eskaintzen dituen Hezkuntza Kooperatiboa transmititzen eta irakasten, eta zein den ordu gehien eskaintzen dituen gunea edota erakundea.

Datu esanguratsuena unibertsitateetan aurkitzen da, hauek dira Hezkuntza Kooperatiboari ordu gehien eskaintzen diotenak. Beste erakundeak baino askoz ordu gehiago ematen dituztela baieztatu daiteke. Unibertsitate guztietan ematen diren ikasgai, kurtso eta bestelakoak batuz guztira 626 ordu eskaintzen dituzte Hezkuntza Kooperatiboa irakasten.

Bigarren erakundea Otxalora dugu, bertan 192 ordu ematen dira Hezkuntza Kooperatiboaren irakaskuntzan, unibertsitateko datuekin alderatuz askoz ere datu baxuagoa dela nabarmentzen da.

Hirugarren erakunde moduan Euskadiko Kooperatiben Federazioak ditugu. Hauek Hezkuntza Kooperatiboari urtean 160 ordu eskaintzen dizkiote, datu hau ere aurrekoekin konparatuz oso datu baxua suertatzen da.

Azkenik Ikastolak ditugu, hauek Hezkuntza Kooperatiboari ordu gutxien eskaintzen diotenak dira, 40 ordu besterik ez dituzte ematen Kooperatibismoaren inguruko gaiak irakasten.

3. Ondorioak

EAE-n ematen den hezkuntza kooperatiboari buruzko emaitzak jaso eta aztertu ondoren hona hemen aipa daitezkeen ideia xume batzuk:

Orokorrean antzeman daiteke Euskal Komunitatean hezkuntza kooperatiboaren tokia nahiko mugatua dela eta, orokorrean, asko dagoela egiteko, batez ere Kooperatiben aldetik.

Aztertu diren sektore guztietatik hezkuntza kooperatiboa gehien bermatzen duten gunea unibertsitateak dira. Izan ere erakunde hauek eskaintzen diote hezkuntza kooperatiboaren irakaskuntzari ordu eta ikasgai edo kurtso gehien. Unibertsitateetan gehien sakondu diren arloak Kooperatibismoaren historia eta arlo juridikoa izan dira, baina esan beharra dago, sarritan kooperatibismoaren historia edota baloreak beste ikasgai batzuen edukien artean barneratuta agertzen direla eta, beraz, arlo juridikoari eskaintzen zaio arretarik gehien.

Ikerketatik atera daitezkeen beste ondorio garrantzitsu bat, kooperatiba diren Ikastolek hezkuntza kooperatiboari eskaintzen dioten denbora urria da. Arizmendiko ikastoletan besterik ez da jarduten Kooperatibismoaren inguruan, eta bertan ere ez zaio denbora eta sakontasun gehiegirik eskaintzen.

Federazioei dagokionez, hauek gehien lantzen duten arloa Gestio eredu kooperatiboari dagokiona da, beste arlo guztiak nahiko baztertuta uzten dituzte. Baita ere esan, hauek eskaintzen dituzten kurtsoek ez dutela unibertsitateko ikasgaiek beste sakontasun izaten.

Azkenik Otalarako formazio zentroaren inguruan esan, MCC osatzen duten kooperatibetan lan egiten duten pertsona guztiak kontutan izanez gero, beharbada ez da nahikoa Otalaratik bideratzen den hezkuntza kooperatiboa, eta arlo gehiagotan sakondu beharko litzateke.

